

Ura eta Zalba

ZALBA

- Iturriak, latsagiak
- Ibaiak, errekek
- Uharkak, putzuak
- Erlazionatutako toponimia
- Ur-horniketa
- Urarekin lotutako jarduerak
- Lizoainibar-Arriasgoitiko memoriaren bilketako elkarrizketak



ITURRIAK

Zalban iturri bat dago herritik 300 bat metrora, ekialderantz, Susategiko sakanean.

LATSAGIAK

Ez zegoen latsagirik. Lixiba errekan edo ibaian egiten zen.

IBAIK, ERREKAK

Erro ibaiak iparretik hegora zeharkatzen du dermioa. Herria ibaiaren ezkerraldean dago. Erro ibaiaren mendebaldean Leiungo erreka dago. Erreka horrek garrantzi handia izan zuen; izan ere, herrira ur-hornidura iritsi aurretik, baratzeak ibai ondoan zeuden, eta erreka horretako ura baliatzen zen baratzeak ureztatzeko.



UHARKAK eta PUTZUAK

Ohikoa zen etxeek putzua izatea: baziren etxe barnekoak, bai eta kanpokoak ere. Herrian askak ere bazeuden; bat Tejedor etxeko patioan eta beste bat Irigoien etxeko putzuaren ondoan.

ZUBIA

Herrian bada zubi zahar bat, Erro ibaia zeharkatzeko. Zubia harrizko zutabe handiek osatzen dute (ostikoak nabarmentzen dira), eta horien gainean zurezko egitura bat. Gaur egun aski hondatua dago. Zalbatik Leiun edo Laboarako bidean zegoen.



Erro ibaiaren gaineko zubia, Zalban

(2018)

ERLAZIONATUTAKO TOPONIMIA

Errega (Erregakoa), Iturraldea (1734), Urustegi (1716).

UR-HORNIKETA

Ez da txorrotako urik izan 60ko hamarkadara arte. Ordura arte, edateko ura baldeka ekartzen zen errekatik eta, bestelako erabileretarako, putzuetako ura baliatzen zen. Ura herrira 1968an ekarri zen. Iturburuko ura 100 metro beheragoko biltegi batera eraman zen, handik herriaren gaineko aldeko biltegi batera eramateko. 2014az geroztik Mendinueta Soluziotik ekartzen da ura. Itoizko ura ubidetik hartzen da, Mendinuetan, eta Argonga mendira ponpatzen da. Handik, edateko ur bihurtuta, herrietan barna hedatzen da.

URAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK

50eko eta 60ko hamarkadetara arte eskualdeko jarduera ekonomikoetako bat zen mendia ustiatzea enborrak Erro ibaian behera eramanez.

1. argazkian gizon bat ikus daiteke, Zalban, Erro ibaian arrantzan, 1922an (Luis Rouzaut-en argazkia)

ARGAZKIAK

-Gizon bat Erro ibaian arrantzan, Zalban. 1922. urtea. Egilea: Luis Rouzaut.